

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Prestatu eta trebatzeko ikastaroak

SEGURTASUN SAILA

382

EBAZPENA, 2022ko urtarrilaren 3koa, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Ertzaintzako Oinarrizko Eskalako eta Ikuskapen Eskalako karrerako funtzionarioentzat Lehergailuak Indargabetzeko-NRBQ espezializazio-ikastaroan sartzeko hautapen-prozesurako deialdia egiten baita.

Euskal Herriko Polizia Hautatzeko eta Prestatzeko Araudia onesten duen 315/1994 Dekretuaren 52. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoaren arabera, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeke ekainaren 28ko 15/2012 Legean ezarritakoaren arabera, Akademiako Zuzendaritzak, Segurtasun Saileko Segurtasun Sailburuordetzak ezarritako helburuekin bat etorritik, Lehergailuak indargabetzeko-NRBQ espezializazio-ikastaroan sartzeko hautapen-prozesurako deialdia egiten du, Ertzaintzako Oinarrizko eta Ikuskapen Eskalako karrerako funtzionarioentzat.

OINARRIAK

Lehenengoa.– Deialdiaren xedea.

1.– Ertzaintzako Oinarrizko eta Ikuskapen Eskalako karrerako funtzionarioentzat, oposizio sistemaren bidez, Lehergailuak Indargabetzeko-NRBQ espezializazio-ikastaroan sartzeko hautapen-prozesurako deialdia egiten da.

2.– Deitutako plazak 13 dira: 11 plaza Oinarrizko Eskalako karrerako funtzionarioentzat; 2 plaza Ikuskapen Eskalako karrerako funtzionarioentzat.

3.– Deitutako plazen kopurua handitu ahal izango da, edozein arrazoiengatik hautapen-prozesu horretan zehar Unitatean izan daitezkeen lanpostu hutsen arabera.

Kopurua handitzen bada, Poliziaren eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiaren ebazpen bidez jakinaraziko da, Euskal Herriko Polizia Hautatu eta Prestatzeko araudia onesten duen uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuaren 40.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Gehitze hori oinarri hauen arabera arautuko da, eta, edozein kasutan ere, hamargarren oinarrian aurreikusitako izapidea baino lehen xedatuko da.

Bigarrena.– Izangaien betekizunak.

1.– Hautaketa-prozeduran onartuak izateko honako betekizun hauek bete beharko dituzte:

a) Aldez aurretik eskaera egitea.

b) Administrazio-egoera aktiboan izatea.

c) Oinarrizko Eskalan edo Ikuskapen Eskalan, hurrenez hurren, karrerako funtzionario izendatuta egotea, eskala bakoitzean deitutako lanpostuetarako.

d) Euskal Herriko Poliziaren Hautaketa eta Prestakuntza Araudia onesten duen Dekretua bigarrenez aldatzen duen otsailaren 17ko 36/2004 Dekretuan agertzen den baztertze medikoen taulan ez egotea.

e) Ebazpen hau argitaratzen denean, atxikitako lanpostuan gutxieneko iraunaldian ez egotea, salbu eta aldi hori beteta badago, edo organo eskudunak uko egitea onartu badu, edo atxikipen eta arrazoi bereko beste lanpostu bat lortu nahi bada, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 22ko 1/2020 Lege Dekretuaren 97.3 artikuluan eta abenduaren 22ko 388/1998 Dekretuaren 5.3. azken paragrafoan ezarritakoarekin bat etorritz.

f) Lehergailuak Indargabetzeko-NRBQ ikastaroetan sartzeko hiru deialdi baino gehiagotan parte hartu gabe egotea.

Deialdi bat agortutzat emango da, eta konputagarritzat joko da, funtzionarioa ikastaroan parte hartzeko ontzat ematen den kasuan. Ez, ordea, deia egiten duen organoak ikusten badu, nahi gabeko kausa dela-eta, izangaia ikastarora ez dela bertaratu edo ikastaroa ez duela amaitu. Hala denean, behar bezala justifikatuta egon beharko du.

2.– Prozeduran parte hartu nahi dutenek aurreko puntuan jasotako baldintza guztiak bete beharko dituzte eskariak aurkezteko epea amaitu aurretik, horien egiaztapena egin beharreko prozeduraldiaren kaltean izan gabe.

3.– Hautaketa-prozeduran onartua izateko eta parte hartzeko, nahikoa izango da izangaiek, beren eskabide orrian, eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela adieraztea; betiere, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denerako bete beharko dituzte. Betekizun horiek organo deitzaileak egiaztatuko ditu ofizioz, eta, horretarako, Giza Baliabideen Zuzendaritzaren dagokion egiaztatzea eskatuko da.

4.– Aurrekoa hala bada ere, hautaketa-prozeduraren edo prestakuntza-ikastaroaren edota praktikaldiaren uneren batean, onartutako eta baztertzeko zerrenda egiten duen eskudun organoak jakingo balu izangaietariko bati deialdian parte hartzeko eskatutako baldintzaren bat falta zaiola, hautaketa-prozesutik kanpo utziko luke, eta, hala badagokio, prestakuntza-ikastarotik edo praktika-alditik baztertu egingo luke, betiere, interesdunari entzun ondoren.

Hirugarrena.– Eskabideak.

1.– Ikastaro honetan parte hartu nahi duten Ertzaintzako funtzionarioek departamentuen arteko Gurenet intranetaren bitartez egin beharko dute eskabidea, bertan eskuragarri dagoen eskabide eredia betez.

2.– Eskabideak aurkezteko epea 20 egun baliodunekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

3.– Eskabidean zehaztu beharko dute zein hizkuntzatan egin nahi dituzten oposizio-probak, gazteleraz edo euskaraz. Eskaera hori oposizio-proba guztietarako loteslea izango da.

Laugarrena.– Izangaiak onartzea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak onartutako eta baztertutako behin-behineko zerrenda onartuko du (eskalen arabera bereizita), eta zerrenda hori hamalaugarren oinarriaren hirugarren atalean adierazi bezala jakinaraziko da.

2.– Behin-behineko zerrendan baztertuta agertzen diren izangaiei dagozkien arrazoiak adieraziko zaizkie, eta interesdunek 10 egun balioduneko epea izango dute erreklamazioak aurkezteko eta eskabideak izan ditzakeen hutsak zuzentzeko.

3.– Aurkeztutako erreklamazioak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiaren ebazpen bidez onartu edo baztertuko dira, eta horren bitartez egingo da behin betiko onartutako

eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda (eskalen arabera bereizita), zeina hamalagarren oinarriaren hirugarren atalean adierazi bezala jakinaraziko den.

Bosgarrena.– Epaimahai kalifikatzailea.

1.– Euskal Herriko Poliziaren Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuan, eta uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuan xedatutakoaren arabera, hautapen-sistemaren probak zehaztu, garatu eta ebaluatzeko Epaimahai Kalifikatzaile bat izendatuko da. Epaimahai hori mahaiburu batek, lau bokalek eta idazkari batek osatuko dute.

Epaimahai Kalifikatzailea osatzen duten kideen eta horien ordezkoen izendapena Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiaren ebazpen baten bitartez jakinaraziko da, hamalagarren oinarriaren hirugarren atalean adierazi bezala.

2.– Epaimahai Kalifikatzailearen jardunak organo kolegiatuen funtzionamenduko araudi erregulatzailean indarrean diren xedapenak aintzat hartuko ditu.

Epaimahai Kalifikatzailea osatzen duten kideei Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 28 eta 29 artikuluetan bildutako abstentzio eta errefusatez kausak ezarriko zaizkie.

3.– Hautaketa-sistema osatzen duten proben garapena eta ebaluaketa Epaimahai Kalifikatzaileari dagozkio, eta horrek jarduteko autonomia osoa izango du. Prozeduraren objetibotasunaz Epaimahai Kalifikatzailea arduratuko da, eta, gainera, deialdiko oinarriak betetzen direla bermatuko du.

4.– Epaimahai Kalifikatzaileak, bere jardunerako, –hautaketa-sistema osatzen duten probetarako–, aholkulari edo adituen laguntza izan dezake. Horien lana, beren berezitasun-jarduna ikusirik, aholkatzea eta teknikoki laguntzea izango da.

5.– Deialdiaren oinarrietan aurreikusten ez diren alderdiei dagokienez, hautaketa-sistema buruzteko beharrezkotzat jotzen dituzten neurriak hartu, eta oinarri horiek ulertu eta ezartzerakoan sortzen diren arazo guztiak erabaki ahal izango ditu epaimahaiak, baita bere funtzioetako jarduna ere.

6.– Epaimahaiak ezin izango ditu deitutako plazak baino ikasle gehiago hautatu. Horrelakorik gertatuz gero, gehiagoko horiek baliogabetuak izango lirateke eskubide osoz.

7.– Epaimahai Kalifikatzailearen erabakiak hamalagarren oinarriaren hirugarren atalean adierazi bezala jakinaraziko dira.

8.– Epaimahai Kalifikatzaileari helbide elektroniko honetara bidaliko zaizkio idazkiak:

2022nrbq@seg.euskadi.eus

Epaimahaiak posta elektronikoz erantzungo die jasoko dituen idazkiei, betiere Ertzaintzako funtzionarioen banakako helbide elektroniko korporatiboetara idatziz.

9.– Aipatutako Epaimahai Kalifikatzailean parte hartzen duenak legez aurreikusitako ordainsaria izango du.

Seigarrena.– Hautaketa-sistema.

Hautaketa-sistema oposizio bidezkoa izango da, eta deialdiaren oinarrietan aurreikusitako probak izango dira izangaien gaitasuna eta horien arteko lehentasuna zehaztuko dutenak.

Lehenetasun-hurrenkera aipatutako probetan lortutako puntuazioen gehiketarekin zehaztuko da, eta euskararen ezagupenetan lortutako puntuazioarekin gehiagotuko.

Zazpigarrena.– Oposizioa.

Oposizioa ondorengo probek osatuko dute:

1.– Lehenengo proba: proba espezifikoa, nahitaezkoa eta kanporatzailea, eskatutako lanpostua betetzeko izangaiak dituzten gaitasun eta trebetasun kognitibo eta fisikoak ebaluatzeko. Zazpi estazioko zirkuitu bat izango da proba, eta, horietan, ariketak egin izana eta ariketak egiteko erabilitako denbora baloratuko dira. Proba hori gehienez 100 punturekin baloratuko da.

Deialdi honen I. eranskinean azaldutako estazioak egingo dira proban, eta horretarako ezarritako eta I. eranskinean zehaztutako baremoen arabera baloratuko dira.

Ariketa fisikoak parte-hartzaileen erantzukizunpean egingo dira, eta ariketa horietarako kirol-arropa egokia ekarri beharko dute.

2.– Bigarren proba: gaitasun fisikoaren proba, nahitaezkoa eta kanporatzailea. Proba hori gehienez 50 punturekin baloratuko da.

Deialdi honen II. eranskinean azaldutako bost ariketak egingo dira proban, eta horretarako ezarritako eta II. eranskinean zehaztutako baremoen arabera baloratuko dira.

Proba hori gainditzeko, bost ariketetako bakoitzean 5 puntu lortu beharko dira gutxienez, eta, bost ariketen batukarian, 25 puntu gutxienez.

Ariketa fisikoak parte-hartzaileen erantzukizunpean egingo dira, eta ariketa horietarako kirol-arropa egokia ekarri beharko dute.

3.– Hirugarren proba: proba psikoteknikoak; hain zuzen, bi ariketa, nahitaezkoak eta kanporatzaileak, banaka kontuan hartuta. Izangaien gaitasunak eta jarrerak zehazteko. Ariketa hauek ditu:

3.1.– Gaitasun-testak, Lehergailuak Indargabetzeko-NRBQ Oinarrizko Eskalako edo Ikuskapen Eskalako lanpostua behar bezala betetzeko beharrezkoak diren gaitasun edota trebetasun garrantzitsuenak ebaluatzeko. Arrazoitze gaitasunak, gaitasun espazialak eta arreta-pertzepziokoak ebaluatuko dira. Gehienez 120 punturekin baloratuko da, eta gutxienez 60 puntu lortzen ez dituzten izangaiak kanporatuta geratuko dira.

3.2.– Nortasun-testa, nortasunaren ezaugarri orokorrak ebaluatzeko, baita hautapen-prozesuan parte hartuko dutenek desorekaren edo moldatu ezinaren adierazgarriak ote dituzten ere. Gehienez 100 punturekin baloratuko da ariketa, eta gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten izangaiak kanporatuta geratuko dira.

4.– Laugarren proba: banakako edota taldekako elkarrizketa. Nahitaezkoa eta kanporatzailea. Izangaiak lanpostuari dagozkion eginkizunak eta lanak behar bezala betetzeko jokabidea eta gaitasun egokiak dituela zehazteko. Gehienez 130 punturekin baloratuko da, eta gutxienez 65 puntu lortzen ez dituzten izangaiak kanporatuta geratuko dira. Proba honen balorazioa III. eranskinean zehaztutako baremoen arabera egingo da.

Zortzigarrena.– Oposizioaren proben garapena.

1.– Oposizioko probak ezin izango dira hasi deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik bi hilabete igaro arte.

2.– Lehenengo proba noiz, non eta zer ordutan izango den, gutxienez zazpi egun natural lehenago iragarriko da, hamalaugarren oinarriaren hirugarren atalean ezarritakoaren arabera. Gainerako probei buruzko iragarkiak modu berean iragarriko dira, gutxienez hirurogeita hamabi ordu lehenago.

3.– Epaimahai Kalifikatzaileak deialdi honetan ezarritako proben ordena alda dezake, baita probak osatzen dituzten ariketena ere, edota zenbait proba egun berean egitea ere erabaki dezake. Kasu horretan, proba bakoitza ebaluatzeko, aurrekoa gaindituta izan beharko da.

Izangaien kopurua kontuan harturik, eta zerbitzuaren beharrianak proba burutzearekin bat etorrituz, proba bakoitza egiteko, zenbait txandatan deitu ahal izango dira izangaiak.

4.– Epaimahaiak nahitaezkoztat jotako probak egiteko finkatutako tokian, egunean eta orduan agertzen ez direnak hautaketa-prozeduratik baztertuta geldituko dira behin betiko, ez agertzearen arrazoia ezinbestekoa izan arren. Nahitaezko probak egiten hasi ondoren agertzen direnei ere arau berbera ezarriko zaie.

Nahitaezko probaren batek ariketa bat baino gehiago baditu, horietako bat ez egitea edo ariketa horretara berandu agertzea ez-aurrekiztat hartuko da.

Aurrerago ezarritakoaren salbuespen gisa, eta hautaprobetan aukera- eta tratu-berdintasuna bermatze aldera, gaitasun fisikoko probak egitean haurdun dauden, erditu berri diren edo erdiondoan dauden emakumeek –eta egoera horiek probak egin aurretik Epaimahai Kalifikatzaileari jakinarazi bazaizkio eta medikuaren ziurtagiriaren bidez egiaztatu badira– proba horiek atzeratzeko aukera izango dute, betiere, hamargarren oinarrian ezarritako hautapen-sistema argitaratu aurretik egiten badira.

Hala ere, gainerako probak egin beharko dituzte, beharrezkoak diren egokitzapenak eginda.

5.– Nortasun agiria eraman beharko da proba guztietara, Epaimahai Kalifikatzaileak edozein unetan eska baitezake agiri hori erakustea.

6.– Proben emaitzak Epaimahai Kalifikatzailearen erabaki baten bidez jakinaraziko dira, hamalaugarren oinarriaren hirugarren atalean ezarritakoaren arabera.

Bederatzigarrena.– Euskararen ezagutza-maila baloratzea.

Euskararen ezagutza merezimendu gisa baloratuko da; horren ondorioz, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, 20 puntu lortuko dituzte Ertzaintzaren 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek, edo 297/2010 Dekretuak, azaroaren 9koak, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko denak (2010eko azaroaren 15eko EHAA, 219. zk.) edo 47/2012 Dekretuak, apirilaren 3koak, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagiriaren bidez egiaztatzetik salbuesteko denak ezarritakoaren arabera aitortu edo parekatu zaienek.

Hautapen-prozesuan ez da euskararen ezagutza egiaztatzeko probarik egingo.

Hamargarrena.– Hautaketa-sistemaren azken kalifikazioa.

1.– Hautaketa-sistemaren azken kalifikazioa oposizioa osatzen duten probetan lortutako puntuazioen gehiketa izango da; baita ere, euskararen ezagupen-mailatik lortutakoaz gehitutakoa, eta horrexek zehaztuko du izangaien lehentasun-hurrenkera (eskalen arabera bereizita).

2.– Sailkapen-hurrenkeran puntu berdinketarik izango balitz, ondorengo irizpideen arabera erabakiko dira ezarritako hurrenkeran:

- a) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea.
- b) Banakako edota taldekako elkarrizketan lortutako puntuazio onena.
- c) Proba berezietan lortutako puntuazio onena.

3.– Hautatzeko prozeduraren kalifikazioa amaitu ondoren, Epaimahai Kalifikatzaileak hamalau-garren oinarriaren hirugarren atalean ezarritakoaren arabera onartu eta argitaratuko du, eta datu hauek bidaliko dizkio Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Zuzendaritzari:

a) Hautaketa-prozedura gainditu duten izangaien zerrenda (eskalen arabera bereizita), puntu gehien lortu dituenetik gutxien lortu dituenera antolatutakoa.

b) Hautatutako pertsonen zerrenda (eskalen arabera bereizita): lehentasun-hurrenkeraren ordena jarraituz hautaketa-prozedura gainditu dutenak eta deitutako plaza kopuruan sartzen direnak.

4.– Aurreko puntuan ezarritako argitalpenaren eta Lehergailuak Indargabetzeko-NRBQ Ikastaroan sartzearen artean, hautatutako izangaien zerrendan edozein zirkunstantziagatik aldaketaren bat izanez gero, hamalau-garren oinarriaren hirugarren atalean ezarritakoaren arabera argitaratuko da aldaketa hori zehazten duen erabakia edo ebazpena.

Hamaikagarrena.– Osasun arazo baztertzailek ez izatea.

1.– Hautaketa-prozesuan, prestakuntza-aldian eta praktikaldian zehar edo horiek bukatzean, izangaiei eskatu ahal izango zaie beharrezkoak diren mediku-azterketak egiteko, Ebazpen honetako bigarren oinarriko e) letran ezarritako bazterketa medikoen taulara egokitzen ote diren egiaztatzeko.

2.– Aurreko atalean ezarritakoa betetzeko, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak Mediku Epaimahaia izendatuko du, eta horren izendapena hamabigarren oinarriaren hirugarren atalean ezarritakoaren arabera jakinaraziko da.

3.– Mediku Epaimahaia mahaiburu batek, bi bokalek eta idazkari batek osatuko dute.

4.– Mediku Epaimahaiak emandako txostenak arrazoituak izan beharko dira kanporatze-arrazoiren bat dagoela egiaztatzen denean, eta jarraitu beharreko prozedurak, betiere, interesdunaren audientzia-eskubidea bermatuko du.

5.– Osasun-arazoengatik baztertze medikoen taulan ezarritako arrazoiengatik kanporatzeko eskumena duen organoa Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusia izango da.

6.– Oinarri honetan aurreikusten den Mediku Epaimahaiari bosgarren oinarriko 2., 7., eta 8. zenbakietan jasotako arauak aplikatuko zaizkio.

Hamabigarrena.– Lehergailuak indargabetzeko-NRBQ espezializazio-ikastaroa.

1.– Hautatuak, hamargarren oinarrian dioenaren arabera, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak deituko ditu ebazpen baten bidez, Lehergailuak Indargabetzeko-NRBQ espezializazio-ikastaroa egiteko.

2.– Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak izapidetuko du, Giza Baliabideen Zuzendaritzaren bitartez, hautatutakoei ikastaroan sartzeko jakinarazpena.

3.– Lehergailuak Indargabetzeko-NRBQ espezializazio-ikastaroa prestakuntzaldi batez eta praktika-aldi batez osaturikoa izango da, biak nahitaezkoak eta baztertzailleak. Ikastaroa gainditzeko biak gainditu beharko dira.

4.– Lehergailuak Indargabetzeko-NRBQ espezializazio prestakuntza-ikastaroa Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian egingo da edo Akademiako zuzendariak horretarako erabakitzen duen zentroan, eta Ikasketa Planean aurreikusitakoaren arabera emango da, eta bertan adierazten den iraupena izango du. Praktikaldia Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak arautuko du, Ikasketa planean ezarritakoarekin bat etorritz.

5.– Ikastaroaren azken emaitza hamalagarren oinarriaren hirugarren atalean ezarritakoaren arabera jakinaraziko da, Ikasketa Planean ezarritakoarekin bat etorritz.

6.– Prestakuntzaldia edo Praktikaldia gainditzen ez dutenak baztertu egingo ditu Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak.

7.– Halaber, ikastaroari ezarriko zaizkion ebaluazio-irizpideekin bat etorritz, ondorioztatzen bada Ikasketa planeko ikasgaien ebaluazio partzialetik ezin dela ikastaroa gainditu (prestakuntza-aldia eta praktikaldia), Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak kanporatu ahal izango du eragindako persona, hari entzun ondoren.

Hamahirugarrena.– Lanpostu hutsak betetzea.

Ikastaro hau gainditu izanak ez du berez lanpostu jakin bati atxikitzeko eskubiderik emango.

Hala eta guztiz ere, espezializazio-ikastaro hori gainditzen dutenek, egiten den lehenengo deialdian, lehenasunez eskatu beharko dituzte –Euskal Herriko Poliziaren Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintza Dekretuan jasotako sistemen bidez– lortu duten prestakuntza eta ezagupenak eskatzen dituzten lanpostu huts guztiak, eta, horietarako eskabiderik egiten ez badute, lanpostu horietako edozein atxiki edo izendatu ahal izango zaie derrigorrez. Azken kasu horretan, ez dute inolako diru-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

Hamalagarrena.– Azken xedapenak.

1.– Hautatutako izangaia ikasle gisa dagoen bitartean, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko Barne Araudiaren Erregelamenduko barne erregelamendu eta diziplinazkoaren arauen mende egongo da. Araudi horrek gehigarriko izaera edukiko du, hain zuzen, Euskal Herriko Poliziaren Kidegoen Diziplinazko Erregelamenduko Arauetan, egintza ikasle-diziplina baino gehiago izan ahal den kasuetan.

Euskal Herriko Polizia Hautatu eta Prestatzeko araudia onartzen duen uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuaren 38.2 artikulua aplikatuz, hautapen-prozesutik kanpo geratzeko arrazoia izango da aurreko puntuan aipatutako arauetako edozeinetan arau-hauste larri edo oso larri gisa tipifikatutako bat egiteagatik zehapena ezartzea.

2.– Deialdi honetan borondatez parte hartzen da; beraz, 5/2012 Dekretua, urtarrilaren 17koa, Ertzaintzan egindako zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzkoa, aplikatuz, hori egiteak, eta azterketetara, ebaluazio-probetara edo proba praktikoetara edo hautaketa-prozesua garatu eta burutzeagatik bertaratu beharreko ekintza guztietara joateak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik ekarriko.

3.– Berariaz besterik xedatzen ez bada, argitalpenak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-taulan egingo dira, hargatik eragotzi gabe Gurenet saileko intranetean kontsultatu ahal izatea.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-taulan argitaratuko den data erabakigarria izango da epeak zenbatzeko.

4.– Euskal Herriko Polizia Hautatu eta Prestatzeko araudia onartzen duen uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuaren 56. artikuluan ezarritako ondorioetarako, deialdi hau agortutzat joko da eta, beraz, konputagarria izango da, funtzionarioa deialdi honetan parte hartzeko onartzen denean, hautaketa-prozesura ez agertzea edo hori ez amaitzea nahi gabeko arrazoi bategatik ez bada eta hori behar bezala justifikatu ez bada behintzat, eta hori deialdia egin duen organoak libreki balioetsiko du. Azken kasu horretan, ukitutakoak deialdia ez zenbatzeko eskatu beharko dio idatziz Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiarri, 4.3. oinarrian ezarritako izapidearen aurretik.

5.– Administrazio-bidea amaitzen duen ebazpen honen kontra, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango diote Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Nagusiarri, hilabeteko epean, argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera, edo zuzenean aurkaratu ahal izango dute administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Azken kasu horretan, administrazioarekiko auzien epaitegien lurralde-eskumeneko arauak errespetatu beharko dira (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 14. artikuluan jasota daude arauak).

Deialdi honetatik, Epaimahai Kalifikatzailearen jardunetik edo Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko organoetatik sor daitezkeen egintza administratiboak inpugnatu ahal izango dituzte interesdunek Administrazio Prozedura Erkidearen Araudi Erregulatzailan aurreikusitako eran eta kasuetan.

Arkauti, 2022ko urtarrilaren 3a.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusia,
ANDRÉS ZEARRETA OTAZUA.

I. ERANSKINA
 PROBA ESPEZIFIKOA
 LEHERGAIK INDARGABETZEKO-NRBQ ESPEZIALIZAZIO-IKASTAROA




Proba honetan, hainbat estazio izango dituen zirkuitu bat burutuko da. Zirkuitua osorik burutu beharko da 80 segundo baino gutxiagoan. Denbora hori igaro ondoren edota proba ondo egin ez dutenak ez gaitzat hartuko dira eta hautapen-prozesutik kanpo geratuko dira. Zirkuitua osatzen duten estazioetako bakoitzean saialdi bakarra egin ahal izango da; guztiak egiten ez baditu, hautagaia baztertuta geratuko da.

Puntuazio-baremoa:

- 50 segundo baino gutxiago: 100 puntu.
- 60 eta 50 segundo artean: 75 puntu.
- 70 eta 61 segundo artean: 50 puntu.
- 79 eta 71 segundo artean: 25 puntu.
- 79 segundo baino gehiago: 0 puntu.

1.– Izangaiak mahai gainean aurkituko duen txartela ukitzen duenean hasiko da denbora aurrera egiten. Txartela ahoz gora jarriko du, eta horretan hiru kolore eta bakoitzari dagokion zenbakia (1etik 10era) aurkituko ditu. Izangaiak txartel horren 3 konbinazioak buruz ikasi beharko ditu, zirkuitua burutzeko duen denbora agortzen ari zaiola jakinda.

Adibidea:

	5
	6
	1

2.– Bi metroko luzera eta 40 zentimetroko altuera duen egitura baten azpitik narrastan igarotzea. Bertatik igarotzean egituraren berezko elementuak bota edo ukitzean mugitzen badira, izangaia kanporatu egingo da.

3.– Gimnasiako zaldi baten gainetik igarotzea, salto bat emanaz, baina eskuekin bakarrik ukituz.

4.– Eskailera bertikaletik eskailera horizontaleraino iristea, horren amaieraraino. Izangaiak eskailera horizontaleko azken heldulekuari heltzen ez badio, prozesutik kanporatuko da.

5.– Bi banku suediarren gainetik igarotzea, hasieratik amaieraraino, orekari eutsiz.

6.– Koltxoneta baten gainean itzulipurdia egitea.

7.– Azken postan 3 baloi egongo dira, bakoitza kolore batekoa. Izangaiak banan-banan pasatuko ditu baloiak barra baten gainetik eta, hartu ondoren, probaren hasieran buruz ikasi duen txartelaren arabera baloi bakoitzari dagokion zenbakidun kutxan sartuko ditu. Proba amaitutzat emango da 3 baloiak behar bezala sartu direnean.

II. ERANSKINA

IKASTAROAN SARTZEKO PROBA FISIKOAK
LEHERGAIK-NRBQ ESPEZIALIZAZIO-IKASTAROA

Gaitasun fisikoaren proba nahitaezkoa eta kanporatzailea izango da. Ariketa fisiko hauek egin beharko dira:

- 1.– Course Navette.
- 2.– Press bankua.
- 3.– Besoen flexioa barran /flexio eutsia.
- 4.– Bizkortasun-zirkuitua.
- 5.– Jauzi bertikala.

Ariketa bakoitza 5 eta 10 puntu bitartean baloratuko da, baremoen arabera.

Gaitasun fisikoaren proba gaindituzat emateko, gutxienez 5 puntu lortu beharko dira gutxienez ariketa bakoitzean eta, beraz, probaren bost ariketa guztietan, 25 puntu gutxienez.

1.- COURSE NAVETTE


Deskribapena: izangaia lerro baten atzean jarriko da, eta soinu-seinale batek emango dio hasiera probari. Korrika egingo du izangaiak, kontrako aldean (20 metrora) dagoen marra zapaldu arte, eta soinu-seinale bat entzun arte itxarongo du korrika egiten jarraitzeko. Egoera hori test osoan zehar errepikatuko da.

Lasterketaren erritmoa audio-gailu baten bidez erregulatuko da. Gailu horrek soinu bat igorriko du tarte erregularretan.

Neurketa: izangaietako batek

- audio-gailuak ezarritako unean zapaltzen ez badu marra
- soinu-seinaleak markatutako erritmoaren aurretik badoa
- lerroa zapaldu gabe aldatzen badu noranzkoa
- bira zirkularrak egiten baditu, marraren gainean pibotatu beharrean

lehen abisua emango zaio. Aipatutako arrazoiren batengatik bigarren abisu bat ematen bazaio, amaitutzat emango da proba, eta egindako azken aldia hartuko zaio kontuan.



2022ko urtarrilaren 25a, asteartea

COURSE NAVETTE, BAREMOAK
GIZONAK

- 35 urte	35 - 40 urte	41 - 45 urte	46 - 50 urte	+ 50 urte	Puntuak
12 ½	12	11 ½	11	10 ½	10
12	11 ½	11	10 ½	10	9
11 ½	11	10 ½	10	9 ½	8
11	10 ½	10	9 ½	9	7
10 ½	10	9 ½	9	8 ½	6
10	9 ½	9	8 ½	8	5,5
9 ½	9	8 ½	8	7 ½	5

EMAKUMEAK

- 35 urte	35 - 40 urte	41 - 45 urte	46 - 50 urte	+ 50 urte	Puntuak
10	9 ½	9	8 ½	8	10
9 ½	9	8 ½	8	7 ½	9
9	8 ½	8	7 ½	7	8
8 ½	8	7 ½	7	6 ½	7
8	7 ½	7	6 ½	6	6
7 ½	7	6 ½	6	5 ½	5,5
7	6 ½	6	5 ½	5	5


2.– AULKIKO PRESSA

Deskribapena: aulki baten gainean, ahoz gora eta zangoak flexionatuta, oinak lurrean jarrita eta eskuak sorbalda baino zertxobait zabalago (erpuaren hatz-mamiak ariketa-barraren alde leun eta latza ukitzen izan behar du), besoak guztiz flexionatu bularra barrarekin ukitu arte, eta segidan luzatu.

Ariketa hasi ondoren, ezin izango da gelditu, ez hasierako heldulekutik eskuak mugitu, ez oinak lurretik jaso, ezta gorputzarekin konpentsazio-mugimendurik egin ere. Baldintza horietako bat betetzen ez bada, proba geldituko da eta ordura arte egindako errepikapenak idatziko dira.

Gizonezkoek 39 kilo altxatuko dituzte, eta emakumezkoek 27 kilo.

Neurketa: ez dira zenbatuko behar bezala eginda ez dauden altxaerak (sakoneko flexioa bularra ukitu arte eta besoen luzapen osoa).



BAREMOAK AULKIKO PRESSA

GIZONAK					
39 kilo					
- 35 urte	35 - 40 urte	41 - 45 urte	46 - 50 urte	+ 50 urte	Puntuak
45	43	41	39	37	10
44	42	40	38	36	9
42 - 43	40 - 41	38 - 39	36 - 37	34 - 35	8
40 - 41	38 - 39	36 - 37	34 - 35	32 - 33	7
36 - 39	34 - 37	32 - 35	30 - 33	28 - 31	6
30 - 35	28 - 33	26 - 31	24 - 29	22 - 27	5,50
22 - 29	20 - 27	18 - 25	16 - 23	14 - 21	5

EMAKUMEAK					
27 kilo					
- 35 urte	35 - 40 urte	41 - 45 urte	46 - 50 urte	+ 50 urte	Puntuak
35	33	31	29	27	10
34	32	30	28	26	9
32 - 33	30 - 31	28 - 29	26 - 27	24 - 25	8
30 - 31	28 - 29	26 - 27	24 - 25	22 - 23	7
26 - 29	24 - 27	22 - 25	20 - 23	18 - 21	6
20 - 25	18 - 23	16 - 21	14 - 19	12 - 17	5,50
12 - 19	10 - 17	8 - 15	6 - 13	4 - 11	5

3.– BESOEN FLEXIO EUTSIA BARRA FINKOAN (GIZONAK)

Deskribapena: barra finko batetik zintzilik, esku-azpiak aurrerantz dituela eta sorbalden zabaleratik pixka bat gehiago bananduta (1. argazkia), izangaiak besoak tolestu eta gorputza altxatuko du, kokotsarekin barra gainditzea lortu arte (2. argazkia). Ondoren, gorputza hasierako posiziora jaitsiko du (3. argazkia), eta 1" – 2"-ko geldialdia egingo du, eta, ondoren, beste jasoaldi bat egingo du. Ariketa hasi ondoren, ezin izango du atsedetik hartu, errepikapenen arteko nahitaezko geldialdietan izan ezik.

Buruaren enborraren luzapenean egongo da beti. Kokotsak barra ukitzen badu burua atzera botata, hau da, lepoa luzatuta, jasoaldia baliogabetzat joko da.

Ezin izango da kulunkatu, zangoak tolestu, ezta mugimendu orekatzailerik egin ere. Aurrekoa gerta ez dadin, listoi bat jarriko da izangaiaren aurrean, eta hori barraren bertikaletik 35 zentimetrotara dauden bi euskarriren gainean jarriko da. Listoia botatzen bada, proba amaitutzat joko da, eta zuzen egindako errepikapen-kopurua hartuko da kontuan.

Ezin da eskularrurik erabili. Magnesia erabil daiteke (azterketa egingo den lekuan emango da).

Neurketa: saialdi bat onartuko da. Izangaiak aurreko jarraibideen arabera zuzen egiten duen jasoaldi-kopurua hartuko da kontuan.



1. argazkia

2. argazkia

3. argazkia

3.– BESOEN FLEXIO EUTSIA BARRA FINKOAN (EMAKUMEAK)

Deskribapena: izangaia bankura igoko da eta barra finko bati helduko dio, ahoz gora eta eskuak sorbalden zabaleran jarrita; besoak guztiz tolestuko ditu eta gorputza altxatuko du, kokotsa barra gainetik pasatu arte, ukitu gabe (1. argazkia).


Ezin izango da kulunkatu, zangoak tolestu, ezta mugimendu orekatzailerik egin ere. Aurrekoa gerta ez dadin, listoi bat jarriko da izangaiaren aurrean, eta hori barraren bertikaletik 35 zentimetrotara dauden bi euskarriren gainean jarriko da. Listoia botatzen bada, proba amaitutzat joko da, eta zuzen egindako errepikapen-kopurua hartuko da kontuan.

Kokotsa barra horizontalaren mailatik behera jaisten denean edo listoia botatzen denean amaituko da proba.

Burua enborraren luzapenean egongo da beti. Kokotsak barra ukitzen badu burua atzera botata, hau da, lepoa luzatuta, proba amaitutzat emango da.

Ezin da eskularrurik erabili. Magnesia erabil daiteke.

Neurketa: saialdi bat onartuko da. Kronometroa martxan jarriko da oinek bankuarekin kontaktua galtzen dutenean, eta geldituko da kokotsa barraren mailatik behera pasatzen denean. Posizio egokian egindako denbora hartuko da kontuan.



BESOEN TRAKZIOA BARRA FINKOAN, BAREMOAK (GIZONAK)

- 35 urte	35 - 40 urte	41 - 45 urte	46 - 50 urte	+ 50 urte	Puntuak
16	15	14	13	12	10
15	14	13	12	11	9
14	13	12	11	10	8
12	11	10	9	8	7
10	9	8	7	6	6
8	7	6	5	4	5,5
6	5	4	3	2	5

BESOEN TRAKZIOA BARRA FINKOAN, BAREMOAK (EMAKUMEAK)


- 35 urte	35 - 40 urte	41 - 45 urte	46 - 50 urte	+ 50 urte	Puntuak
1'38" edo gehiago	1'34" edo gehiago	1'30" edo gehiago	1'26" edo gehiago	1'22" edo gehiago	10
1'34" -1'37"9	1'30" -1'33"9	1'26" -1'29"9	1'22"-1'25"9	1'18" -1'21"9	9
1'30" -1'33"9	1'26" -1'29"9	1'22" -1'25"9	1'18" -1'21"9	1'14" -1'17"9	8
1'20" -1'29"9	1'16" -1'25"9	1'12" -1'21"9	1'08" -1'17"9	1'04" -1'13"9	7
1'10" - 1'19"9	1'06" -1'15"9	1'02" -1'11"9	58" -1'07"9	54" -1'03"9	6
57" - 1'09"9	53" -1'05"9	49" -1'01"9	45" -57"9	41" -53"9	5,5
45" - 56"9	41" -52"9	37" -48"9	33" -44"9	29" -40"9	5

4.- BIZKORTASUN TESTA


Deskribapena: izangaia irteera-posizioan jarriko da, irteera-marraren atzean, posizio estatikoan, lehen hesiari dagokiona. Hesiaren eskuinetara nahiz ezkerretara egin ahal izango da irteera, eta kasu bakoitzean dagokion ibilbidea egingo da, marrazkian zehaztu dena.

Egin beharrekoa: aztertzaileak baimena ematen dionean, izangaiak proba hasiko du. Urrutien duen banderaxorantz joan beharko du, hori saihestu eta hesirantz abiatu, hesiaren azpitik igaro, hurrengo banderaxoa saihestu eta bi hesien gainetik igaro. Azken hesitik igarotzean, egindako denbora erregistratuko da, zelula fotoelektrikoen bidez.

Neurketa: saialdi bat onartuko da. Izangaiak zirkuituko osagaiaren bat bota edo aldatzen bada (hesiak edota banderaxoak mugitzea) edo ibilbideaz nahasten bada, saialdia baliogabetzat joko da. Horrela bada, beste behin egin ahal izango du. Bi saialdi baliogabe egiten dituen izangaia kanporatu egingo da.



Recorrido Salida por la izquierda



Recorrido Salida por la derecha

Por debajo de la valla —————

Por encima de la valla - - - - -

BIZKORTASUN ZIRKUITUA, BAREMOAK

GIZONAK

- 35 urte	35 - 40 urte	41 - 45 urte	46 - 50 urte	+ 50 urte	Puntuak
8"80 edo gutxiago	8"90 edo gutxiago	9"00 edo gutxiago	9"20 edo gutxiago	9"50 edo gutxiago	10
8"81 – 8"91	8"91 – 9"01	9"01 – 9"11	9"21 – 9"31	9"51 – 9"61	9
8"92 – 9"07	9"02 – 9"17	9"12 – 9"27	9"32 – 9"47	9"62 – 9"77	8
9"08 – 9"38	9"18 – 9"48	9"28 – 9"58	9"48 – 9"78	9"78 – 10"08	7
9"39 – 9"79	9"49 – 9"89	9"59 – 9"99	9"79 – 10"19	10"09 – 10"49	6
9"80 – 10"30	9"90 – 10"40	10"00 – 10"50	10"20 – 10"70	10"50 – 11"00	5,5
10"31 – 11"05	10"41 – 11"15	10"51 – 11"25	10"71 – 11"45	11"01 – 11"75	5


EMAKUMEAK

- 35 urte	35 - 40 urte	41 - 45 urte	46 - 50 urte	+ 50 urte	Puntuak
9"80 edo gutxiago	9"90 edo gutxiago	10"00 edo gutxiago	10"20 edo gutxiago	10"50 edo gutxiago	10
9"81 – 9"91	9"91 – 10"01	10"01 – 10"11	10"21 – 10"31	10"51 – 10"61	9
9"92 – 10"07	10"02 – 10"17	10"12 – 10"27	10"32 – 10"47	10"62 – 10"77	8
10"08 – 10"38	10"18 – 10"48	10"28 – 10"58	10"48 – 10"78	10"78 – 11"08	7
10"39 – 10"79	10"49 – 10"89	10"59 – 10"99	10"79 – 11"19	11"09 – 11"49	6
10"80 – 11"40	10"90 – 11"50	11"00 – 11"60	11"20 – 11"80	11"50 – 12"10	5,5
11"41 – 12"25	11"51 – 12"35	11"61 – 12"45	11"81 – 12"65	12"11 – 12"95	5

5.– JAUZI BERTIKALA

Deskribapena: hasierako posizioa. Zutik, lurrean, eskuak aldaketan jarrita. Enborra makurtu eta belaunak tolestu ahal izango ditu izangaiak, baina ez du lurretik oinen zatirik aldenduko jauzi egin aurretik, ezta eskuak aldaketatik kendu ere. Izangaiak ahal bezain gora egingo du jauzi, eta zangoak luzatuta ukituko du lurra, eta lurra ukitu ondoren tolestu ahal izango ditu.

Neurketa. bi saialdi, eta onena hartuko da kontuan. Jauzia baliogabea izango da lurra zangoak luzatuta ukitzen ez badu edo eskuak banantzen badira. Bi saialdi baliogabe egiten badira, hirugarrena eta azkena egin ahal izango da.



2022ko urtarrilaren 25a, asteartea

JAUZI BERTIKALA, BAREMOAK

GIZONAK

- 35 urte	35 - 40 urte	41 - 45 urte	46 - 50 urte	+ 50 urte	Puntuak
50	48	46	44	42	10
49	47	45	43	41	9
48	46	44	42	40	8
46	44	42	40	38	7
42	40	38	36	34	6
40	38	36	34	32	5,5
35	33	31	29	27	5

EMAKUMEAK

- 35 urte	35 - 40 urte	41 - 45 urte	46 - 50 urte	+ 50 urte	Puntuak
38	36	34	32	30	10
37	35	33	31	29	9
36	35	33	31	29	8
34	32	30	28	26	7
30	28	26	24	22	6
28	26	24	22	20	5,5
23	22	21	20	19	5

III. ERANSKINA

LEHERGAIETAN ESPEZIALIZATZEKO IKASTAROAK-NRBQ

OPOSIZIO-ALDIKO LAUGARREN PROBA

(ELKARRIZKETA PERTSONALA)

Metodologia

Elkarrizketa jokabide-elkarrizketaren metodologian oinarrituta dago. Elkarrizketa mota honen esparru teorikoak hainbat galdera-mota modu orekatuan banatzea ahalbidetzen du, hala nola:

- Kredentzialesi buruz: izangaiaren ikasketei, enplegu-historialari, arrakastei eta porrotei buruzko galderak dira. Adibidea: zer prestakuntza mota jaso duzu?
- Esperientziari buruzko galderak: lan-esperientziari eta esperientzia profesionalari buruzko informazioa aztertzen dute. Adibidea: zeintzuk ziren zure azken destinoko eginkizunak?
- Galdera hipotetikoak: hainbat arlo betetzen dituzte: destinoak, lankideak eta buruzagiak, helburuak, etorkizuna, bere burua. Adibidea: zeintzuk dira datozen urteetarako zure helburuak?
- Jokabidea deskribatzeko galderak: mota honetako galderak ebaluatutako gaitasunei dagokienez izangaiak garatutako jokabideei buruzkoak dira.

Baloratu beharreko gaitasunak

1.– SINESGARRITASUN PROFESIONALA

Erantzukizuna:

Hartutako betebeharez eta hartutako konpromisoak betetzeko eskakizunaz uneoro kontziente izateko eta konpromiso horiek betetzeko behar den ahalegina egiteko trebetasuna. Betebeharraren zentzua duen pertsona. Fidagarria lanean

Osootasun pertsonala / etikotasuna:

Gizabanakoa bere ongizatearen eta, ondorioz, besteenaren erantzule egiten duten arauak eta printzipioak barneratzea, gizartean onartutako jokabide moraletan oinarritutako jokabidearen bidez. Izen ona eta aurrekari onak dituzte, zuzenak dira beren jardueretan, eta argi eta garbi zehaztuta dute ondasun kolektiboaren nagusitasuna interes partikularren gainetik.

Diskrezioa:

Zuhertasuna, zuzentasuna, hitz egiteko eta jarduteko judizioa erakusten duen pertsona. Sekretuak gordetzeko zehaztasuna. Bere ezagupen teknikoak ez erabiltzeko gai da, menpekoei aurre egiteko, haien maila espezifikotik.

Erakundearekiko konpromisoa:

Norberaren portaera antolakundearen behar, lehentasun eta jomugekin lerrokatzeko gaitasuna izatea, jomugak sustatzeko eta erakundearen misioa betetzeko moduan jardunez. Taldeko kide izateagatik

harrotasun sentimendua sortzeko gai izatea. Anbizio pertsonala erakundearen helburuen bidez bideratzeko gai izatea

2.– MOTIBAZIOA

Tinkotasuna/iraunkortasuna:

Gai edo arazo batean irauteko gaitasuna, hura konpondu arte edo helburua arrazoizko aldi batean lortu ezin dela egiaztatu arte. Barne-motibazio handia.

Ekimena:

Abiatzea, jarduteko prestasuna izatea, metodo berriak saiatzeko eta bere buruari motibazioa emateko nagusien gehiegizko bultzadarik gabe.

3.– EMOZIOEN KONTROLA

Egonkortasun emozionala:

Ekuanimo eta neurritsu irauteko gaitasuna, gogo lasaiz eta judizio inpartzialez, egoera zailtan ere. Bere erreakzioak egoerarekiko proportzionalak dira eta bere gogo-aldarteetan jarraipena du. Norberaren emozioak norabide egokian bideratzeko gaitasuna.

Estresarekiko tolerantzia:

Gizabanakoarentzako presio handiko egoera luzeetan lasai egoteko eta eraginkortasunez funtzionatzeko gaitasuna, eta kanpoko estimulu txundigarriak azkar gainditzekoa. Izaeraren mantentze irmoa, presiopean edo aurkakoetan. Erantzun kontrolatuak tentsio-egoeretan.

Porrotaren eta frustrazioaren gaineko kontrola:

Porrotari aurre egiteko, nork bere burua ulertzeko, zentzuzko helburuak finkatzeko eta bere burua kontrolatzeko gaitasuna. Etsipen- eta/edo gaitzespen-egoeretan eraginkortasunez irauteko gaitasuna. Bereziki trebea izatea bere bizitza pribatuko gertaerek bere lanean eraginik izan ez dezaten.

Bere buruarekiko ezagutza eta segurtasuna:

Norberaren emozioak eta akatsak, indarguneak eta ahuleziak ezagutzeko gaitasuna duen pertsona. Lankideengan eta/edo mendekoengan sortzen duen irudiaz jabetzen da, eta bere jardueren arabera irudia aldatzeko gai da. Bere gaitasunei buruzko uste osoa du, baita besteek zalantzak dituztenean ere.

4.– TALDE-LANA

Talde-espirtua eta lankidetzak:

Bestekin lankidetzan aritzeko gaitasuna izatea, helburu komun bat lortzeko. Laguntzaile eraginkorra izatea, baita taldea bere interes pertsonalekin zuzenean lotuta ez dagoen zerbaitetan lanean ari denean ere. Beren esperientzia eta ezagutzak modu espontaneoan transmititzeko eta lankideei baldintzarik gabeko babesa emateko gai izatea.

Moldagarritasuna:

Egoera berriei malgutasunez eta moldakortasunez aurre egiteko gaitasuna, eta aldaketak positiboki eta konstruktiboki onartzeko gaitasuna. Jarrera desberdinak edo aurkitutako ikuspuntuak ulertzea eta baloratzea esan nahi du, bere ikuspegia egoera aldakorrek eskatzen duen heinean egokituz.

Komunikatzeko gaitasuna:

Ideiak edo gertaerak argi eta modu konbentzizailean adierazteko gaitasuna. Taldeko kideei mezu baten edukiak zehatz-mehatz jakinarazten jakitea, nahasterik edo gaizki-ulerturik eragin gabe, eta ezagutza tekniko handia modu errazean transmititzeko.

5.– ARAZOEI AURRE EGITEA ETA HORIEK KONPONTZEA**Objektibotasuna:**

Egoeretatik independizatzeko eta errealitatearen ikuspegi ona osatzeko trebetasuna, datu objektiboetan oinarritutako diagnostikoak eta interpretazioak eginez, lehentasun pertsonalek baldintzatu gabe, gertakariak behar bezala baloratu.

Erabakitze gaitasuna:

Erabakiak hartzeko gaitasuna, aukeraren denboraren barruan aukera zehatz bat hautatzeko gaitasuna, horren zalantza eta arriskua ezagutuz eta onartuz.

Liskarra eta arazoak konpontzea:

Arazoei dimentsio egokian aurre egiteko gaitasuna, gehiegizko dramatismoak eta gehiegizko axolagabekeriak gabe. Konponbide azkarrak behar dituzten gatazka- edo ziurgabetasun-egoerak tratatzeko eta konpontzeko trebetasun berezia duen pertsona.

Sormena:

Arazoak ebazteko ezohikoak edo originalak diren informazioak eta teknikak aurkitzeko eta erabiltzeko gaitasuna. Ideia eta konponbide berriak sortzeko gaitasuna. Arazo ezezagunak detektatzeko trebetasuna. Pertsona berritzailea, metodo eta ikuspegi tradizionalekin kontrajarrita alternatibak identifikatzeko gaitasuna duena.

Autoeraginkortasuna:

Ekintza handiak egitea eta gutxieneko energia eta baliabide kopuru bat mugiaraziz emaitzak lortzea ezaugarri duen pertsona. Bere lanaren bidez lortu nahi dituen helburuak lortzeko gaitasun handia du. Kalitatea ematen dio lanari.

Elkarrizketa pertsonala egiteko modua

Elkarrizketak jendaurrean jarritako eta Epaimahai Kalifikatzaileak onartutako deialdiaren arabera egingo dira. Elkarrizketak teknikari batek (psikologoak) egingo ditu, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Ebaluazio Arloak koordinatu eta gainbegiratuta.

Elkarrizketak audio- eta bideo-formatuan grabatuko dira, elkarrizketatuak berariaz ezezkoa eman ezean; horretarako, grabazioa ukatzeko manifestu bat sinatu beharko du.

Elkarrizketa hasi aurretik, izangaiak zinpeko aurkezpen eta aitorten dokumentu bat irakurri eta sinatuko du. Bertan, elkarrizketaren aurkezpen orokorra egingo da, eta elkarrizketatuak elkarrizketa ez grabatzeko konpromisoa hartuko du.

Elkarrizketa pertsonala egiteko, izangaiak betetako curriculum vitae sinplifikatua erabiliko da, baina ez da puntuagarria izango.

Balorazioa

Bost maila ezarri dira, izangai bakoitza ebaluatutako bost gaitasunetako bakoitzera zein mailatan egokitzen den baloratzeko,. Dagokion gaitasunarekiko egokitzapen-maila bakoitza jarraian ikus daitekeen moduan baloratuko da:

Egokitzapen-maila	Maila gaitasun bakoitzean	Puntuak
Eskasa	1	5
Ez nahikoa	2	32,5
Nahikoa	3	65
Ona	4	97,5
Bikaina	5	130

1. maila: egokitzapen eskasa: elkarrizketa pertsonalean, izangaiak maila oso baxua islatu du ebaluatutako gaitasunean. Egokitzapen-maila txikia denez, deialdiko lanpostuaren zereginak eta funtzioak eraginkortasunik gabe beteko direla esan nahi du, eskumen hori eginkizun eta zeregin horiek betetzeko beharrezkoa denean.

2. maila: egokitzapen ez nahikoa: elkarrizketa pertsonalean, izangaiak maila baxua islatu du ebaluatutako gaitasunean. Lanpostura behar bezala ez egokitzeak ez du bermatzen deitutako lanpostuaren zereginak eta funtzioak behar bezala beteko direnik, baldin eta eskumen hori beharrezkoa bada eginkizun eta zeregin horiek betetzeko.

3. maila: egokitzapen nahikoa: elkarrizketa pertsonalean, izangaiak maila egokia islatu du ebaluatutako gaitasunean. Egokitzapen-maila nahikoa izateak esan nahi du izangaia gai izan daitekeela deitutako lanpostuaren zereginak eta funtzioak behar bezala betetzeko, gaitasun hori beharrezkoa denean eginkizun eta zeregin horiek betetzeko.

4. maila: egokitasun ona: elkarrizketa pertsonalean, izangaiak ebaluatutako gaitasunarekiko egokitzapen-maila ona islatu du. Egokitzapen-maila handia denez, izangaia gai izan daiteke deitutako lanpostuaren zereginak eta funtzioak modu fidagarrian eta efizientean betetzeko, baldin eta eskumen hori beharrezkoa bada eginkizun eta zeregin horiek betetzeko.

5. maila: egokitasun bikaina: elkarrizketa pertsonalean, izangaiak ebaluatutako gaitasunarekiko egokitzapen-maila bikaina islatu du. Lanpostura ohiz kanpo egokitzeak esan nahi du izangaia gai izan daitekeela deitutako lanpostuaren zereginak eta funtzioak bikain betetzeko, baldin eta gaitasun hori beharrezkoa bada eginkizun eta zeregin horiek betetzeko.

Bost maila horietan aldeztetik definitutako jokabide-ainguraketa batzuk jasotzen dira. Gaitasun guztiak bost mailatan daude eskalatuta, eta maila bakoitzerako portaera-ainguraketak dituzte. Portaera-ainguraketak mailetan zehar garatzen dira, izangaien jokabidearen eta gaitasunen egokitasunera egokitzea eskasa, ez nahikoa, nahikoa, ona edo bikaina den kontuan hartuta.

Jokabide-ainguraketa horiek aztertutako lanpostuarekin lotutako jokabide behagarrien multzoak biltzen dituzte. Jokabide multzo horiek gaitasun jakin batean izandako jardunaren adierazle izango dira.

Elkarrizketaren garapenean lortutako erantzunak, erregistro-orrian eta/edo bideo-grabazioan jasotakoak, elkarrizketatzaileek erregistratutako jokabide espezifikoak izango dira. Esanahiaren arabera, garrantziaren eta agertzeko maiztasunaren arabera, jokabide espezifiko horiek gaitasun jakin bateko maila bateko portaera-ainguraketa batzuetan zehaztu eta islatuko dira.

Gaitasun bakoitzaren egokitasun-maila izangaiak adierazitako jokabide espezifiko esanguratsuetatik lortutako ainguratzeen ondorio zuzena da.

Elkarrizketa pertsonaleko probaren azken puntuazioa gaitasun bakoitzean lortutako puntuazioen batez bestekoaren bidez lortzen da.